

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko abuztuaren 9a

## Egiptoarren zibilizazioaren aztarnak



■ Egiptoarren zibilizazioa ikusgai eta mintzagai da egunotan Iruñean. Nafarroako hiriburuko Udalaren ardura-pean. Batetik, Gotorlekuan Tutankamon faraoiaren hilobiaren aurkikuntza

agertzen duen erakusketa dago; eta bestetik, egunotan eta abuztuan zehar Mari Luz Mangado egiptologoak faraoien garaiko Egiptora hurbilduko gaitu antolatutako ikastaroetan. ■

### Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Ilepa aspaldiko! Kaixo! Zer moduz? Ongi, hagitz ongi. Hi ez al hintzen oportetan? Ez, joatekoa naun, baina eguraldiak ez zidan laguntzen, aurten eguzkia izan nahi baitinat oportetarako lagun bakarra.

Bai, egia dun, abuztua eta euria, Euskal Herri osoan euria. Ni herrian udaleku irekietan nagon hurrekin... badakin... goizean hartu eta hiru ordu egoten gaitun ekintza desberdinak burutzen. Eta noski, eguraldi honekin ezin izan dizkinagu gauza batzuk batere gozatu.

Hurrekin bahabie, pazientzia handia izanen dun.

Ba bai, baina ez dun horren gogorra, gehienak zoragarriak ditun nahiz eta batzutan munstro bilakatu; badakin Dr.

Jekyll eta Mr. Hyde, baina horrek ere badin xarma.

Batzuk edozein gauzari aurkitzen zioten xarma, ja, ja! Ba ni, UEUn egon naun astebetetz, badakin, Udako Euskal Unibertsitatean.

A bai, Iruñean eta Baionan egiten dena, ez?

Bai, ni Iruñean egon naun, bertsolaritzan apuntatua eta arront ongi pasa dinat, oportetan egonen banintz bezala, okerrena goiz esnatu behar zela.

Gero eta jende gehiago matrikulatzen dun UEUn, ezta?

Bai, bai, joan beharko hukeen urteren batean hik ere. Ez dakin ze inpresio egiten duen: fakultateko jendea ikusten dun, beste fakultateetako ezagunak, gazte pila bat, ez hain gazteak... eta ez

dun hitz bat bera ere erdaraz aditzen. Erdaraz soilik gure egoitzako langileei, Larraonan baikeunden.

Joder, ez dun egia izanen? denak euskaraz?

Bai, benetako euskal unibertsitateak horrela behar luke. Ikasketak euskaraz eta giroa euskalduna. Orain dinagun *Universidad del Pais Vasco* delakoa gure helburuetatik urruti samar zegon.

Bai, hala dun, bai. Beno, joan beharra dinat, ea agudo elkar ikusten dinagun berriz, eta ea eguraldiak hobera egiten dinan oportetan joateko.

Bai, hik ez al dun joan behar?

Bai, irailaren hiruko errekupeketa egin eta martxa.

Beno, ba, ongi pasatu.

Bai, berdin. Aio. X

### Solasean

**GURE AUKERAK**

**KONTZERTUAK**

**Artabia:** Los Morochos taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 9, herriko txiringitoan, 22.00etatik aurrera. Tangoekin musutruk gozatzeko parada ezin hobe izanen da.

**Tutera:** Nafarroako Jaialdien barruan Mani Dibango musikari afrikarrak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 10, Jesuiten ikastetxean.

**ANTZERKIA**

**Zugarramurdi:** Ikili Mikili Klik taldea *Sorginak* muntaia antzeztzen ari da egunero herriko kobazuloetan, heldu den irailaren 15era arte. Lanegunetan emanaldi bakarra egiten dute 18.00etan. Larunbat eta igandeetan bi emanaldi izaten dira, bata 13.00etan eta bestea 18.00etan.

**Abartzua:** Munduko malabaristen Zirko TTipia herriko plazan ariko da hilaren 10ean.

**Izaba:** Azkona taldeak *Kiki, Koko, Moko eta Flax* pailazo ikuskaria aurkeztuko du gaur, herriko plazan. Hilaren 10ean Otsagin taularatuko dute muntaia bera.

**ZINEMA**

**Elizondo:** Montxo Armendarizen *Tasio* pelikula doan ikusi ahal izanen da hilaren 11n, 22.00etan, Azoka plazan.

**ERAKUSKETAK**

**Lizarra:** XX. mendeko literatura abangoardien idazkiak ikusgai izanen dira Gustavo de Maeztu museoa hilaren 25era arte.

**Bera:** Bidasoako paisaia margolarien lanak irailaren 1a arte ikusgai izanen dira herriko Kultur Etxean.

**Zangoza:** *Harriak baino gehiago* instalakuntza hilaren 27ra arte izanen da herriko Kale Nagusian. Horren egileak dira Silvia Jaurregi, Mikel Saiz eta Beatriz Txurruka.

**IKASTAROAK**

**Lizarra:** Pedro Salaberri margolariak margolaritza ikastaroa zuzenduko du Gustavo de Maeztu museoa hilaren 19tik 30era. Informazio gehiago jasotzeko dei 54 60 37 telefonora.

**Iruña:** Musika berriei buruzko tailerra izanen da Gotorlekuko Arma aretoan hilaren 20an.

**Iruña:** Web orriak nola egiten diren ikasteko ikastaroa antolatuko du Nafarroako Internet Taldeak. Ikastaroak astelehenero goizetan egiten dira taldearen egoitzan.

**BIDAIK**

**Galizia:** Etxekoandreen Elkarteak irailaren 18rako txangoa antolatu du Galiziarra. Horretan parte hartu nahi dutenek dei dezatela 22 53 39 telefonora.

*nafar kronika*

Ana Unanue

**Aldrebeskeriak**

**B**ost egunetik behin Lola Eguren Parlamentuko lehendakariarekin kafetxo bat hartzera joan behar duela eta, aurten oporrik gabe gelditu dela kezuka ari zen lehengo batean parlamentario bat. Gizagaixoa. Egurenekin argazkian ateratzegatik 13.000 pezeta besterik ez dituzte kobratzen, pixka bat gehiago Iruñetik kanpo bizi badira, eta Miguel Sanz UPNko lehendakariordearen aurka emandako boto bakoitzagatik beste horrenbeste.

Kuriositate hutsez, kalkuladora hartu eta zenbakiak egin ditut. Sanzen inbestidura saioa gehi lau bozketa bider 50 parlamentario —ken HBko bost ordezkariak, ez zirelako azken hiru bozketetara joan—, gehi hamaika elkarrizketa sorta Egurenekin (hauek bider hamar egin behar dira, Parlamentuko Mahaikoak eta alderdietako bozeramaileak bakarrik joaten direlako) berdin 4.485.000 pezeta. Hori da gutxi gorabehera Nafarroako Gobernuako lehendakari berria izendatzea kostako zaiguna.

Seguruenik kalkulua ez da zehatza, baina berdin da. Esan nahi dut dirutza horrekin par-

lamentario guztiak Menorcara Urralbururi bisitatxo bat egitera bidaliz gero emaitza berbera izango litzatekeela: UPNk prozedura automatikoaz aginduko du irailetik aurrera. Gutxienez horrela aipatutako parlamentarioak ez luke kezatzeko arrazoirik izango, eta guk ere argiago ikusiko genuke azken egunotako komerrien amaiera.

Foru Hobekuntzak hobetzeko moduko makina bat artikulu dauzka, aurrena Nafarroako gobernuburua aukeratzeko sistema arautzen duena. Gaur egun indarrean dagoena izan daitekeen aldrebesena da. Hasteko, ez du Parlamentua desegiteko aukerarik uzten, ezta lehendakari kargua etikaren izenean eskuratu zuenari Suitzan kontu bat harrapatzen badiote ere. Herritarrei hitza eman beharrean, ziria sartu zigutenean esku uzten du berriro gobernu berriaren osaketa, hamaika bozketa antzu eta alferrikako beste hamaika elkarrizketa sortarekin. Sistema berez aldrebesa izanda, ezin harritu gero alderdietako agintariek elkarrizketa horiek aldrebeskeria handiagoak botatzeko aprobetxatzen badituzte.



*asteko pertsonaiak*



**Alberto Barandiaran**  
Jon eta Anderren aita

■ Nafarroako Gobernuak plazaratu berri dituen datuen arabera, 1995. urtean Nafarroako populazioaren hazkundera estreinakoz negatiboa izan zen. Gero eta nafar gutxiago gaude munduan. Kinka triste honetan, Alberto Barandiaran EGUNKARIAko Nafarroako ordezkari buruak eta Malu Ziordia Nafarroako Enpresa Berritzaileen Zentroko langileak mesede handia egin diote foru erresuma zaharrari: bi nafar berri ekarri dituzte mundura, Jon eta Ander izeneko bizkiak hain justu. Bizkiok joan den larunbat arratsaldean jaio ziren, zailtasun handiegirik gabeko erditzearen gibeletik. Euren aitaren arabera, «normalean haur jaioberriak nahiko itsusiak izaten badira ere, Jon eta Ander oso politikak dira eta oso ongi eginda daude».



**Roberto Baggio**  
Futbolaria

Milanek Sadarren jokatu zuen joan den asteazkenean. 10.000 milioi pezetako aurrekontua (400 milioi libera), bost Europako Kopa, hiru Europako Superkopa, hiru Kontinentearteko Kopa... Zenbaki horiek guztietan oinarrituta, Milanek sekulako ikusmina sortu zuen Nafarroako futbolzaleen artean. Astearte arratsaldean Iruñera heldu zirenetik eta asteazken gauean Italiarantz abiatu ziren arte, Milango jokalariek hamaika zale izan zituzten euren inguruan dantzan. Zaleon gozamenerako, Europako talderik handienak bere izar guztiak ekarri zituen Iruñera: Maldini, Baresi, Weah... Ez zen inor falta, ezta Roberto Baggio ere. Berak sortu zuen ikusmin handiena zaleen artean. Tamalez, Baggiok eta bere lagunek jipoi handi samarra eman zioten Osasunari: 0-4.

*a haztu gabe!*



**MANU DIBANGO**

**Tutera:** Manu Dibango Afrikako musikaren patriarkak kontzertua eskainiko du bihar, hilak hamar, Tuteran, gaueko hamarretan eta Nafarroako Jaialdien barruan. Afrika osoa independentzia gerratan jo eta su ari zela heldu zen Dibango Europara. Bertan haren gibeletik beste askok ibiliko zituzten bideak zabaldu zituen. Hasiera-hasieratik afrikar musika jazza, popa eta bluesarekin uztartu zuen. Bere saxoa lagun musikaren munduan daramatzen 30 urteotan estilo horri berari eutsi dio. 40 disko inguru grabatu ditu, eta horien artean *Soul Makossa*, afrikar pop diskoen artean gehien saldu dena. Grabazio bikain horrek Parisko Olympian arrakasta eman zion eta Estatu Batuetako atek ireki zizkion. Hala ere, *Soul Makossa*-k zerbait garrantzitsuagoa lortu zuen, afrikar musikaren inguruko aurreiritziak haustea, hain zuzen ere.

*adi!*

**Euskalerria Irratia FM 91,4**

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetallu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

**Xorroxin Irratia FM 107,5**

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

**Aralar Irratia FM 106,2**

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

**Karrape Irratia FM 107,8**

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

## Leitza

## Bihar hasiko dira Santiburtzioak

Seietan udaletxeko balkoitik etxafueroa jaurti eta festak bost egunez luzatuko dira

**B**ihar hasi eta heldu den ostegunera arte luzatuko dira Leitza Santiburtzioak. Egitaraua ekitaldiz gainezka dator: dantzariak, herri kirolak, pilota partiduak eta bertsolariak besteak beste. Berrikuntza handirik ez programan baina parrandan egiteko gogo handia.

Erredakzioa / Iruñea

OFIZIALKI arratsaldeko seietan Udaletxeko balkoitik botako den etxafueroak hasiera emanen badio ere, herriko edadetuenak lehenagotik hasiko dira parrandan, ordubata eta erdietan bazkaria baitute. Hauen surrin edo, ordubete geroago, herri bazkaria izanen da plazan jateko gogo izan eta Torrea eta Gaztañaga tabernetan salgai dauden txartelak lortzen dituen edonorentzat.

Suziriaren ondoren, Mari Jose Astiz leitzarrari Plazaola aldizkariaren azal onena egiteagatik dagokion saria emanen dio Mikel Ilarregi alkateak. Arratsaldeari eta gauari gelditzen zaizkion gainontzeko orduak Urrats taldeak animatuko ditu plazan izanen den dantzaldiarekin. Hori bai, ez ahaztu urtero legez, aurten ere goizaldeko hiruretan *ligatzeko ingurutxo* izanen dela egunero.

Festak bihar hasiko badira ere, leitzarrek egun handia jaieguna izaten dute, hots, aurten igandarekin tokatzen den Tiburtzio Donearen Eguna. Herrian barna ibiliko diren txistulari, gaitero eta txarangek esnatuko dituzte leitzarrek igande goizean, goizeko bederatzietan izanen diren entzierroa eta ondorengo zezen-tara garaiz-iristeko herriko pla-



Leitzarrek bost egun dituzte nahi adina parranda egiteko.

KARMELE AGIRRE

zara. Mezaren ostean, eguerdiko hamabietan Aurrera K.E. ezpatadantzariek herriko plazan dantzatzeko dute Udal korporazioaren aurrean. Ordu erdi geroago pilota partidua izanen da aipatu elkarteko pilota eskolak antolatua.

Bazkari legea egin eta gero, berriz ere zezenak izanen dira plazan arratsaldeko bost eta erdietan. Geroxeago, Iruñeko Donibaneko erraldoiek gaiteroekin batera herriko bazterrak alaituko dituzte. Dantzaldia oraingoa

Gaubela taldeari egokitu zaio.

Festa bigarrenetan, besteak beste, bertsolariak —Anjel Mari Peñagarikano, Maddalen Lujanbio, Sebastian Lizaso— eguerdi partean eta arratsaldeko sei eta erdietan dantzariak izanen dira. Asteartean ere izanen da zer ikusi eta zer probatu, eguerdiko hamaketan kalderete txapelketa baitago plazan. Leitza harrijasotzaille aparten herria izanik, hauek ere beren saltxoa eginen dute ordu bat geroago. Arratsalde partean umeen txanda izanen

da Goloka taldeak *Prakamotxak* ikuskizuna eskainiko baitu herriko karriketan zehar.

Jaiak ezkonduentzat egokitu-ko den Ama Birjinaren egunarekin bukatuko dira, ostegunetan. Eguneroko diana eta zezenez gain, kirolak hartuko du lekukoa. Eguerdiko hamaika eta erdietan aizkolariak eta idi probak izanen dira plazan, eta Larbando futbol zelaian futbol partidua. Ligatzeko ingurutxoaren ondoren izanen den *pobre de mi*-arekin bukatuko dira festak. X

## Agoitz

## Bihar abiatuko dira herriko festak

■ Hala ere, jaietarako motorrak berotzeko edo, gaur futbol partidua eta dantzaldia izanen dira

Erredakzioa / Iruñea

BIHAR eguerdiko hamabietan botako den suziarekin batera hasiko badira ere Agoizko jaiak, gaur badute motorrak berotzeko ekitaldirik ere. Arratsaldeko sei eta erdietan futbol partidua izanen da Osasuna Promesas eta Agoizko futbol taldearen artean, eta gauerditik aitzina dantzaldia izango dute Drindots taldearekin.

Biharamunetan, suziaren ostean hasiko dira benetako jaiak. Arratsaldeko bost eta erdietan zurrakapotea probatzeko ibilaldia hasiko da herrian barna, eta bi ordu geroago dantzaldia izanen da Behe Nafarroako enparantzan Metropoli orkestrarekin. Bukatzeko, ohi denez, larraindantza dantzatzeko dute herriko gazteek. Gaueko hamarretan Auzolako zubi ondoan su artifizialak ikusteko parada dago, eta ondoren zezen suzkoa. Eguna bukatzeko berritua ere Metropoli orkestrak dantzaldia eskainiko du goizaldeko laurak arte.

Igandean pilotaren txanda izanen da Toki Eder frontoian. Arratsaldeko seietatik aitzina Goñi eta Urrak, Olaizola eta Apeztegiaren aurka jokatzeko dute, eta partidua bukatu bezain azkar Unanue eta Galarza III.ak, Nagore eta Lasa III.aren aurka.

Pilota partiduen ostean, arratsaldeko dantzaldia eta gaueko Passarela taldeak alaituko du. Pilotak bere txokoa izanen badu ere, igandeak besterik ekarriko du Agoitzera. Gaueko ordu batean Angiluerreka Elkarrekin antolatuta kontzertua izanen da, Kashbad, Familia Polloe eta Eztanda taldeekin.

Asteburua pasatu eta astelehenean umeek hartuko dute lekukoa, beraiei eskainiko baitzaie egun hori. Egun batez, herriko haurrek aginduko dute. Udalean udal txikia osatuko da; ondoren painueloa ezarriko zaie aukeratu, eta batzarra antzeztuko dute. Eztabaidak alde batera utzi

eta ordu bata eta erdietan korporazio txikia erraldoi eta kilikien konpartzarekin herrian barna ibiliko da.

Astelehena umeena izan bazen, asteartea gazteena izanen da. Arratsaldeko hiru eta erdietan bazkaria egingo dute trikitalari eta guzti. Arratsaldean txarangekin batera poteoan ibiliko dira, eta hamarretan berriz ere mahaian eseriko dira kalderetea probatzeko. Egunean zehar irentsitakoak botatzeko gaueko ordu batean Bittor Aiaperen eta Etxakit taldearen kontzertua izango dute. Asteazkena nagusientzat izanen da, eta ostegunetan akituko dira jaiak. X

## Bunuze

## Ekitaldi ugari izanen da Inxausetako egitarauan

■ Nafarroa Behereko herrian kontzertua egonen da gaur

Julen Arriola / Baiona

URTERO legez, Nafarroa Behereko Bunuze herrian Inxausetako kanpin-antzerkiko udako ekitaldi kulturalak izanen dira. Aurten bada berrikuntzarik. Gaur, Dominique Alchourroumek eta Valerie Guerinek piano kontzertua eskainiko dute, eta, ondoren, Michel Etxekopar ariko da kantari.

Aurten ekitaldi kulturalak ez dira asteburu bakarrean izanen, aurreko urteetan bezala, baizik eta abuztu osoan zehar eta irailera luzatu baitira. Prestatutako ekitaldien artean garrantzitsuenak aurrean aipaturiko kontzertua izanen da. Egun handia gaurkoa izanen den arren, Bunuzen udako ekitaldi kulturalak abuztuaren leian abiatu ziren. Bestalde, Blachon marrazkigile frantsesak bere lanak aurkeztuko ditu Iparraldeko Philippe Tastet marrazkigilearekin batera. Bestalde, datorren ostiralean, Inxausetak Mouce taldearen kafe-antzerki ikuskizuna aurkeztuko du; eta irailaren 6an, denboraldia amaituko da bertso-afari batekin. X

## Burlata

## Sukaldaritzan lehiaketa dute datorren ostiralean

■ Elizako Plazan eginen da

Erredakzioa / Iruñea

EUSKAL HERRIKO beste toki askotan bezala, Burlatan ere jaiak izanen dituzte datorren astean eta asteburuan. Asteazkenean hasiko dira eta hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak herrikoentzat eta bisitariarentzat. Euskaldunei jatea asko gustatzen zaiela aintzat hartuz, aipatzekoa da Udalak sukaldaritzan gustuko dutenentzat heldu den ostiralean, abuztuak 16, antolatu duen sukaldaritzan lehiaketa.

Lehiaketa Elizako Plazan izanen da 12.30etan eta partehartzeleek herrian bizi direnak izan beharko dute, eta lehiakide bakoitzeko gehienez bi plater onartuko dira.

Hori gutxi balitz bezala, kalderete bazkaria ere izanen dute herriko koadrilek egun berean. Udalak jarriko ditu, koadrila bakoitzeko, sua egiteko egurra, hiru ogi, hiru kilo untxi eta patata, fruta eta ardoa bazkaria laguntzeko. X

Tutankamon faraoiaren  
erakusketa

# Faraoiaren altxorra

*Tutankamonen hilobiaren aurkikuntzaren argazkiak eta piezak Iruñeko Gotorlekuan ikusgai daude*

**A** buztuaren 31 bitartean mende honetan izan den aurkikuntza arkeologiko garrantzitsuenaren —Tutankamon faraoiaren hilobia— aztarnak eta nondik-norakoak ikusteko parada dago Iruñeko Gotorlekuko Mixtos aretoan. Erakusketak egiptoarren zibilizazio aberatsera hurbiltzeko aukera ematen du.

Irene Arrizurieta / Iruñea

ZIBILIZAZIO egiptoarra Nilo ibaiaren ertzean sortu zen. Herodoto historialari grekoak «Egipto Niloren dohaina da» zioenean ez zegoen oker, ibai ertzean historiak eman duen zibilizazio orijinalenetakoa eta garrantzitsuenetakoa ezarri baitzen. Zibilizazio egiptoarra Nilo Baileratik Mediterraneo itsasoraino hedatu zen. Antzinako Egipto bi lurraldetan banatuta zegoen: Deltaren zatia —iparraldea eta Egipto Behea deitua— eta hegoaldeko zatia —Egipto Garaia izena hartu zuena—.

Faraoia zen gizartean guztien gainetik zegoena, Estatuaren arima eta jainko guztien pertsonifikazioa. Bere mendean, bata bestearen atzetik, zeuden nobleak, goi funtzionarioak, eskribak, artisauak, langileak eta nekazariak. Egiptoarrek, betikotasuna aurkitu nahirik, hil ondorengo bizitza hemengoaren jarraipen bezala ulertzen zuten. Hori dela eta, utzi diguten artearen parte batek hori guztia islatzen du, eta, era berean, garai hartako Egiptoko zibilizazio aberatsaren aztarnak (ingenieritza eta eraikuntza lanak, bizitzeko ohiturak...).

Gizarte horren lekuko da abuztuaren 31 arte Iruñeko Gotorlekuko Mixtos aretoan Tutankamon faraoiaren hilobiaren aurkikuntza azaltzen duen erakusketa. Bertan, aurkikuntzaren 58 argazki, hilobiaren maketa eta arkeologia egiptoarreko piezak ikus daitezke (Bartzelonako Museo Egiptoarrek utzitako sarkofagoa, maskara bat, hildakoaren barrenkiak gordetzeko lau ontzi kanope eta Howard Carter arkeologo ingelesak 1923. urtean hilobia aurkitu zuenean erabili zituen mapak eta grafikoak).

Tutankamon 18 urte zituela hil zen Tebasen, K.a.tik 1327. urtean hain zuzen ere. Agintzeko denbora gutxi izan bazuen ere, faraoiaren hilobiaren inguruko aurkikuntzak sortu izan duen zalapartak badu erantzunik. Mari Luz Mangado egiptologoa egunotan Iruñean da faraoien garaiko Egiptoren inguruan ikastaroa emateko. Bartzelonako Unibertsitatean historia irakas-

lea da Mangado, eta zera dio: «Batetik, arkeologiaren ikuspuntutik Tutankamonen hilobiaren aurkikuntza mende honetan izan den aurkikuntza garrantzitsuen da eta horregatik da jendeak gehien ezagutzen duena da; eta bestetik, aurkikuntzak nobelagintza handia eragin du». Hori nahikoa ez dela, aurkikuntzak ere badu beste interesik; faraoi horren hilobia bakarrik agertu da zigilatua. Horrek ordura arte osatu gabeak zeuden egiptoar zibilizazioaren errito eta ohituren inguruan zeuden

duda-muda asko argitzeko aukera eman zuen. «Lehenengo aldian faraoi baten hilobia zigilatua agertzen zena, hilobi bat arpila-

tzaileek bortxatu gabea», dio Mangadok. «Aurrean hilobi ostilamendua aurkitu zuen Carter arkeologoak; eta horrek, batetik,

ezagupen handia eman digu hileta-erritoen eta egiptoarren haratagoko bizitzari buruzko sinesmenen inguruan; eta, bestetik, altxorrak duen aberastasun izugarria (urrea, harribitxiak...) ikusteko eta aztertzeko aukera izan digu».

Hilobia lord Carnarvonen mezenasgopean aurkitu zuen 1923an Howard Carter arkeologo ingelesak Erregeen Nekropolian (Tebas). Tutankamonen hilobia, bertan aurkitu zenaz gain, maldizioak joa dagoen usteak ere egin du ezagun. Aurkikuntzan parte hartu zuten gehienek handik gutxira hil baitziren. Baina



Tutankamonen sarkofagoak faraoiaren irudi jainkotua eta zorrotza azaltzen du.

Tutankamon faraoiaren  
erakusketa

Goian, Mari Luz Mangado irakaslea, Gotorlekuan hilobian aurkitutako pieza baten ondoan. Behean, Howard Carter eta Callender —laguntzaileetako bat—, hilobiaren ganbaraurra husten.

OSKAR MONTERO

Tutankamon 18 urte zituela hil zen Tebasen, K.a.tik 1327. urtean hain zuzen ere. Agintzeko denbora gutxi izan zuen

## «Egiptoar zibilizazioa Kristo aurreko 2500dik 2000ra arteko errentatik bizi da»

FARAOIEN garaiko Egipto gogora ekartzen duen Tutankamonen altxorren nondik norakoak ezezik, garaiaz zerbait gehiago jakiteko aukera ere izanen da, abuztuan ikastaroak antolatu baitira. *Faraoen munduaren ikuspegia* izenburupean ostegunean, ostiralean eta larunbatean bi ikasle taldek gai hauek jorratu dituzte: Egiptoko historia, artea eta antropologia, egiptoar hizkuntza eta altxorren aurkikuntzak ekarri zituen kulturen gora-beherak. Finean, Egiptoko zibilizazioak utzi dituen artelanak —bai artistikoak bai arkeologi-

koak—. Ikastaroa Mari Luz Mangado Bartzelonako Unibertsitatean historia irakasle eta Egiptologian adituak gidatzen du. Ikastaroan ikasleak, historialariak eta kuriosoak aurkitu ditugu. Udan gaudelako jende gehiena oporetan egon arren, eurek ez dute huts egin nahi izan faraoien kulturaren eta antzinako historian trebatzeko aukera.

Egiptoko zibilizazioaren iker-tzaile sutsua da Mangado iruindarra, eta Bartzelonan, Parisen, New Yorken eta Egipton haren berri izaten saiatu da. Egiptoarrak utzitako altxor historikoak

ez duela parekorik uste du Mangadok, eta hori erakusten saiatzen da ikastaroan. «Argitalpenek eta interesatuek eraikin handiak izaten dituzte ardatz, baina jendeak ezezagun duelako nik bereziki goraitutako nuke egiptoarren Garai Zaharrena —piramide handiak egin ziren sasoi— eta, batez ere, Gorte Aelikoaren inguruan sortu zen artea. Goi mailako funtzionarioen artea eta eboluzio linguistiko guztia, I. eta II. Dinastian eratu zena. III. eta IV. Dinastian ere konotazio partikularrak suertatu ziren, Antzinako Inperioan aurrera aterako

ziren oinarri edo modelo batzuen sorrera —III., IV., V. eta VI. Dinastian— eta egiptoarrak zibilizazio kulturen eta artearen oinarria izanen zirenak».

Egiptoarrak, iraganean eta gaur egun ere, Egipto zeharkatzen duen Nilo ibaiaren inguruan eta haren igoeraren eta jaitsieraren baitan bizi dira. Naturaren gora-beheren menpe egon beharrik ekarri du askoren ustez Egipto bere baitan oso itxia bizi den iritzia. Hori aintzat hartuz, garai bateko zibilizazio oparoak ez duela jarraipenik izan baieztatu daiteke Mangadoren irudiko. «Hau erabat egia ez izan arren, Kristo aurreko 2500dik 2000ra izandako Dinastia guztiek egiptoar zibilizazio, kultura eta arte kontzeptuak markatu zituzten eta, geroztik, garai horretako errentetatik bizi izan direla esan dezakegu». Mangadok dienez, beste zibilizazio askorekin gertatu den moduan, deus gutxi gordetzen du egungo Egiptoko gizarteak beren arbasoek utzitakotik, aberastasun artistikoa izan ezik. «Koptoak salbu, Egiptoko egungo gizarteak ez du faraoien zibilizaziotik deus gordetzen. Hauek dira soilik kultura faraonikoaren jarraitzaileak, eta Alejandriako Patriarka mantendu dutenak —Lapa, Egiptoko figura solemneena—. Geroago, kultura arabiarraren inbasioa eta asimilazioa egon da, eta, fisikoki berdinak diren arren, adibidez, Kristo aurreko 2000. urtean lortu zuten eraikuntza eta ingeniari-tza maila izugarria galdu egin dute. Egungo Egiptok ez du zerikusirik garai hartakoarekin. Ez dute euren burua arabiartzat baizik eta egiptoartzat, baina beren kultura arabiarra da». X



Mangadok deuseztu egin digu maldizioaren kondaira. «Arkeologia bizitzeko modua bat izateaz gain, lanbidea ere bada. 1923an Tutankamonen hilobia aurkitu zuten arkeologoek ez ziren akademikoki formatutakoak, baizik eta lanaren poderioz ikasitakoak, ezagupenak esperientziaren bidez hartzen joan zirenak. Hilobiaren atzetik hamar urte zebiltzan; ez zen musutruk lortutako zerbait izan, esfortzu eta irmotasunaren fruitua izan zen. Carnarvon gaztea zen, baina Carter 1892. urtean jaioa zen. Beraz, ez zen gaztea eta bere ondarea eta bizitza aurkikuntzan inbertitua zuen. Aurkikuntzaren ostean beste hamar urte eman zituzten aurkitutako piezak katalogatzeko. Carter adineko pertsona zen eta Egipton bizitza gogorra da, batez ere ingelesentzat; hil zen laurogei urte paseak zituenean, ez maldizioagatik baizik etea garaia iritsi zitzaioelako. Carnarvon, berriz, aurkikuntzaren ostean bere baitan itxi zen eta ez dakigu zehazki nola hil zen. Industretan parte hartu zuten besteek egiptoarrak ziren, eta gazteena —garaian haurra zena— oraindik bizi da Egipto Erdian. Aurkikuntza kasualitatea izan zen, Carterrek urteak zeramatzen atzetik eta nekatua zegoen. Hala ere, kasualitatea aurretik egindako urte askotako lana izan zen».

Xanti Begiristain

## Larraungo euskaldun bat gutxiago

■ Bizia etengabe jarraitzen dio bere ildoari. Ez dio inori eta ezeini barkatzen. Denok dakigu jaiotzen den orok heriotza zor duela, baina hala eta guztiz ere, batzuetan kostatzen zaigu hori sinestea, batez ere, heriotza gure inguru hurbilean dabilenean.

Gure familian orain dela egun gutxi egokitu zaigu heriotzari aurre egitea. Zehazkiago esanda, abuztuaren 4an hil egin zitzaigun aita, Joxe Migel Begiristain, beraz, erraz ikus daitekeenez, guretzat ez nolana hiko pertsona.

Bere ia-ia laurogeita bat urteko bizitzan gauza eta gora-behera ugari tokatu zaio: Larraungo Uitzin herrian jaio zen, eta senide askoren artean (8-9 bat) bera gazteena edo gazteenetakoa zen.

Lehendabiziko urteetan Uitzin aritu zen jostaketan bere anai-arrebekin eta herriko beste neska-mutiko batzuekin. Beste batzuetan egiten zituen amak agindutako mandatuak, eta pentsatzekoa da, inoiz edo behin ere, bihurrikeriatxoren bat ere egingo zuela Goizuetako Iñigo, bere bilobatxoaren antzean. Errekalde etxean bizi izan zen zenbait urtetan, Nikolas Ormaetxea 'Orixe' idazle ospetsuaren moduan.

Beranduxego jasan behar izan zituen Franco dikta-dorearen esku beltzaren ondorioak Uitzin eskolan bertan, mojek gaztelania soilik erabiltzera behartzen zituztenean haur gutziak.

Mutil kozkorra zenean ere pairatu izan behar izan zuen Euskal Herriko seme izatearen pekatua, izan ere, Iruñeko San Jose enparantzan zegoen ikastetxe erlijioso batera bidali baitzuten ikasketa batzuk egitera. Berak matematika eta beste irakaskagai askotan ere, hitzak buruz ikasten omen zituen, baina gaztelerazko hitzak zirenez gero, ezer gutxi ulertzen omen zuen, eta gorriak eta beltzak ikusi zituen antza. Latinez eta grekoz, beste mutikoak baino askoz ere hobe ibili zen nonbait, jakina, horietan erdaldunen baldintza beretsuetan zegoen, eta oroimena erabiliz, bere adinekoak baino hobeki defenditzen omen zen.

Guadalajarara ere bidali zuten noizbait frailtze batean estudiantzera, baina han ematen zieten janari eskas eta kaskarrekin nazkatuta Uitzira itzuli omen zen berandu baino lehen. Hamalauren bat urterekin Uitzitik Etxarriko Behiko Bordara joan ziren eta amarekin bakarrik (ordurako aita hilda baitzuen) atera behar izan zituen aurrera baserriko lan gutziak: behiak, txahalak eta txekorrak, belarrak, ihastorrak, egurrak, e.a. Kontu egin hasieran Behiko Borda oso zaharra zela, zi-

rriku asko zituela, eta urik eta argi elektrikorik ere ez zuela, besteak beste.

Espainiako Gerra Zibilean ere aritu behar izan zuen bere borondateraren aurka eta nekaldi latzen ondoren lortu zuen bizirik itzultzea Soriako Albaracin izeneko mendi elurtu eta hormatu haietatik; denek ezin kontatu izan omen zuten gauza bera. Batzuk balek eta metrailak hil omen zituzten eta beste batzuk koile eginda utzi omen zituen hotz gorriak.

Beranduago amatxorekin ezkondu eta sei seme-alaba hazi eta hezi zituen haren laguntzarekin. Gu gutziak aurrera atera ahal izateko sakrifizio eta lan gogorak egina zen, esatera, Aldazko harrobian, Lekunberriko lantegi batean (hor bere lankideak defendatzeagatik kanporatu zuten), Leitzaoko paper lantegian, eta beste nonbait. 65 urte inguru zituenean jubilatua zen baina baserriko



lanetan oraindik jarraitu zuen orain dela lau bat urte arte. Hitz batez, beti aritu da besteen alde lan egiten mundu hau gehiegi gozatu gabe.

Euskarari ez dio inoiz uko egin, nahiz eta Francoren garai zailak egokitu eta hizkuntza hori zela-eta behin baino gehiagotan gutxietsia izan. Nik euskara ikasten nuen bitartean eta ondoren ere beti izan du oso jarrera prestua ahal zuten neurrian laguntzeko. Heriotza bezperan, azken ilunabarrean, oraindik izan zuen adorea euskaraz galde-tzeko ea non ibilia nintzen eta ea afalduta nengoen. Adore diot zeren eta gaitzak nekez uzten baitzion hitz egiten oinaze bizien artean. Bestetik, ez dezagun ahaztu egoera diglosiko nazkagarria.

Azkeneko bi urteak Iruñean eman ditu. Laburbilduz, esan daiteke, bere akatsak eta guzti, bizitza duintasun osoz bizi izan duela nahiz eta gure harremanak beti ez izan idealenak. Gogorra izan da ikustea nola minbizi malapartatu batek suntsitu duen holako pertsona sendo bat. Larraundar euskaldun zintzo bat galdu dugu, berak ordea zortzi biloba euskaldun utzi dizkigu. Bihoakio hemendik omenaldi gisa pertsona apal horri, gure aitari, artikulu kaskar hau! ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Jose Joakin Perez Nekotxea: astoaren miresle

■ Joan den astekoan bezalaxe, honetan ere erronkariar bat izkiriagai izanen dugu, Jose Joakin Perez Nekotxea Uztrotzeko seme argia zena hots. Esan herrian 1772. urteko urtarrilaren 9an sorturik, apez karrera egin zuen. Bi zuzenbideak burutu zituen Zaragozan, eta kanonetan atzeman zion doktoradutzari. Aragoiko Erret Entzutegian abokatu, Jaca eta San Ildefonsoko Kolegiatan bereganatu zituen artak. Frantsestealdian Jose Bonaparteren alde azaldu etzelako, hainbat oldar eta eraso jasan behar izan zuen, espetxeratu ere izan zelarik. Hau guztiaren ondorioz Fernando VII.ak, erregetza berreskuraturik, Carlos III.aren ordena eskeini zion. 1823.an eta hirurteko konstituzionalaren barne, berriz ere gartzelaratu zuten erregeazalea zelako susmoetan, Canarietako apezpikutegetzarako aurkeztu zuen proposamena bertan behera geratu behar izanik. Geroxeago Arabako artzedianoa izan zen Kalahorrrako gotzaitzeari 1830.ean eta 1834.ean berriz moldetegi nahiz liburudenden zensore nagusia izan genuen, eta azkenik gobernuko buruek Vich eta Oviedoko apezpikutegetzarako aurkeztu zuten ibaxako gure gizona 1836.ean. Oviedoko kabildoak ordea bere aukeraketa egina zeukan nonbait, eta etzuen Nekotzearena onartu, beraz sekulako istilu latz eta gorriak sortu ziren aukeraketaren inguruan bakoitzak bereari tira eta temaki eutsiz. Gobernamentuak afera bere onera erakartzeko asmoz Siguenzako kadera eskeini zion Uztrotzekoari baina honek ezetz, Oviedoko zegoitola, eta hari gabe jai zutela. Honen inguruan bi liburu ondu zituen bere eskubideak aldarrikatzeko asmoz, hauek dira, Madrilen 1840.ean argitaratu *La causa eclesiástica de Oviedo: sobre desprecio y violación de censura impuesta a varios canónigos y capellanes de la santa iglesia catedral por rebeldes*, eta Oviedon bertan urte berean inprimatu zen *Relación histórica documentada de los sucesos ocurridos en la diócesis de Oviedo sobre el nuevo nombramiento del gobernador eclesiástico en el señor obispo electo doctor D. José Joaquín Pérez Necochea, y de otros acontecimientos íntimamente conexonados con dicho nombramiento, compuesta y dada a la luz por un prebendado, dignidad de esta santa iglesia*. Hau dena jazo bitartean, 1837. urtean Nafarroako senatore kargua eskuratu ahal izan zuen, eta hartan ere jarraitu egin zuen, 1843.ean barbarako ganbararen adineko lehendakaria izan zela.

Nolanahi ere, honako hontara ekarria izateko ohorea baldin badu, ezta naski orai arte esandako zio guzientzat, bere jakinduri zabal osoaren bilduma den liburu hau largatzeagatik baizik. *El asno ilustrado o sea apología del asno con notas y el elogio del rebuzno por apéndice por un asnólogo aprendiz de poeta*. Madrileko moldetegi nazionaletik 1837.ean elki zen hau giza jakinduri guzieren erakusgarri dugu, bai historia, filologia, geografía, teología, filosofía, física, política, moralá, edota dena delakoen biltzailea. Etzuen benetako izena erabili lana sinatzeko, eta abizena erdaratuz, J.J. Zeper Demicasa itzulpenaz baliatu zen, euskara ama hizkuntza zuela erakutsiz, nahiz funtsgabekeri hortarako besterik gabe erabiltzeko. Lan honetan Manuel Lozano Perez Ramajo zenaren astoaren omenezko olerkia jaso zuen, eta haren gainean idazki osoaren iruzkinak eta ekarpen jakintsuak eratu zituen. Esan egin da lotsagabekeriak beteriko lana dela, baina iduri farregarri xamar baten azpian erudikzio haundiko gizona ezkutatzen da, gai guztetan iaioa dena. Ironia lipar guztetatik isuritzen da, eta sinadura berean astotegiaren mandazain bezala agertzen zaigu. *borriero del asnólogo delakoa alegia*. Sorterria gogoan zuela behin baino gehiagotan agertu zuen, eta horrela hiru behien tributoa bazekarren, baita emaztekien orrazketak, Abderramanen istorioa, Gardeko Pedro Bereterra kontearena, edota Uztrotze herriazko hainbat kontu ere, esate baterako San Nikolas egunean ateratzen ziren apezpiku txikiak: *Yo ahora para demostrar que tal usanza ha bogado no menos en España, alego el registro de alhajas de la iglesia de mi pueblo, donde se dice: una mitra de seda bordada para el obispo de los niños, un pectoral para el obispo de los niños, una muceta de seda carmesi para el obispo de los niños. No me chanco porque así es puntualmente, y yo mismo he llevado estas investiduras y ejercido estas funciones, echando bendiciones al pueblo, bien distante mi inocencia de oír su origen, ni que hubiese habido iglesias de categoría, ni que existiesen libros que hubieran llamado mi episcopado de los locos.* ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko bosgarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 31n jokatu.

Juri Shulman (Bielorrusia), 2.540 ELOkoa — Pablo San Segundo (Espainia), 2.520 ELOkoa.

1) d4, d5; 2) c4, e6; 3) Zf3, c6; 4) Zc3, c4.

Peoi honen defentsaz arduratuko dira beltzak, baina erori egingen da.

5) a4, Ab4; 6) e3, b5; 7) Ad2, a5, 8) b5, Ac3; 9) Ac3, b5; 10) b3, Ab7; 11) d5, Zf6; 12) c4, b4.

Oreka peoietan, baina peoi pasatuek zirrara sortzen dute.

13) Af6, Df6; 14) Da4xa, Zd7; 15) Zd4.

d5-eko peoia janez gero Db5 jokaldiak aukerak emanen lizkieke txuriei.

15)...., e5; 16) Zb3, Ee7; 17) Ae2, Dd6; 18) f4.

f4 jokaldiari, e4 zaio erantzuna.

18)...., hG-c8; 19) 0-0, Zc5; 20) Zc5, Gc5; 21) aG-d1, e4; 22) Dal, Ef8; 23) De5, De5; 24) e5, Eg8; 25) Gf4, b3; 26) dGf-f1, b2; 27) Gbl.

IKUS KUADROA. Benetako borroka hastear da. Nor irabazle?

27)...., Ad5; 28) d5, Gc2; 29) Af1, a4; 30) Gf2, Gf2; 31) Ef2, a3; 32) Ac4, a2; 33) Aa2, Ga2; 34) Eg3, g5; 35) d6, h5; 36) d7, Ga8; 37) Gb2, Ef8; 38) Gd2, Ee7; 39) h4, h4 xa; 40) Eh4, Ed8; 41) Eg5, Ga6; 42) Ef4, Gg6; 43) Ee4, Gg4 xa; 44) Ef5, Gg6; 45) Gd4, Gg2; 46) Ef6, Gf2 xa; 47) Gf4, Gd2; 48) Ef7, Gd7 xa; 49) Ef8, Gh7; 50) Gd4 xa.

Beltzek etsi zuten, nahiz eta oraindik garaipena lantzen behar.



# Etxarriko abesbatza Torreviejan saritua

Sakanako abeslariak lehendabiziko saria eskuratu zuten Alacanteko Polifonia eta Habanera lehiaketan



Hogeita bost urte egin ditu Etxarriko abesbatzak.

ARTXIBOKOA

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

EGUN 51 lagunek osatzen dute Etxarriko abesbatza. Abeslaririk gazteenek, bi neskatok, 16 urte daukate eta zaharrenek, berriz, 60. Igor Ijorra abesbatzako zuzendariaren aburuz, anabasa polita da. «Abesbatza batean bakarrik gazteak baldin badaude, ahotsaren kolorea pixka bat haurrena da. Abesbatza zaharrek osatzen badute, badirudi abesbatza hilda dagoela. Hoberena nahasketa da, oreka».

Abesbatza zuzendari gaztea, nonbait, ez dabil oker, ahots gazte eta zaharrez osaturiko anabasa horrek joan den asteburuan liluratuta utzi zuen eta Torreviejako Polifonia eta Habanera lehiaketa garrantzitsuko epaimahaia. Sakanako abeslariak lehendabiziko saria eskuratu zuten, milioi bat pezeta hain zuzen ere (4.000 libera). Ijurraren arabera, dirutza abesbatzaren 25. urteurrenaren ospakizuntan gastatuko dute.

Non gastatzerik izanen dute; izan ere, aurten bere 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi anitz antolatu ditu Etxarriko abesbatzak. 1996. urtea hasi zenetik, hilabeteko kontzertu bat gozatu ahal izan dute etxarritarrek: Odei Ertz abesbatza, Orfeoia, Iruñeko La Asuncion abesbatza, Leitzako abesbatza, Lorenzo Ondarra organo jolea... Ijurraren hitzetan, «kalitatezko abesbatzak izan dira, Euskal Herriko hoberenekoak».

Uztailean eta abuztuan oporak hartu dituzte, baina irailetik

**E**txarriko abesbatzak Torreviejako Polifonia eta Habanera lehiaketako lehen saria jaso zuen joan den asteburuan. Saria opari ezin hobea izan da aurten 25 urte bete dituen Sakanako abesbatzarentzat. Laguntza horrekin, urte osoan egiten ari den ospakizun kontzertuekin aurrera segituko du.

aurrera kontzertuak itzuliko dira: «Sine Nomine abesbatza etorriko da, ahal badugu Tolosako lehiaketara etorritako abesbatza atzeritarren bat ekarriko dugu, eta abenduan orkestraren bat

ekarriko dugu, guztia abesbatza musika izan ez dadin».

**Mende laurdena baino askoz gehiago** • Dena dela, Ijurrak Etxarriko abesbatzak aurten 25

urte baino askoz gehiago bete dituela aitortu zuen. Ez daki zehatz-mehatz noiz sortu zen, baina argi dago mende laurdena baino askoz gehiago igaro dela harrezkerotik. «Abesbatza pa-

rrokian sortu zen, eta badugu paperetan gutxienez duela 175 urte bazela abesbatza parrokiara».

Hortik abiatuta, abesbatzaren historiaren laburpena egin zuen Ijurrak. «Mende honen hasierahasieran emakumeak sartu ziren, eta abesbatza horrek nohiz-behinka kanpoan abesten zuen». Ateraldiak, dena dela, ez ziren ugariak izaten. «Behin Zaragozara joan ziren, duela 50 urte edo, baina normalean gutxitan ateratzen ziren, gehienetan Sakanara eta Iruñera besterik ez».

1971. urtean aldaketa garrantzitsua gertatu zen Etxarriko abesbatzan Francisco Villanueva apaizaren eskutik. «Horrek ikusi zuen abesbatzak maila dexentea zuela, eta esanen zuen 'beno, joan beharko dugu lehiatza' eta bi aldiz pentsatu gabe, lehiaketetara joaten hasi ziren». Lehendabiziko saria Zangozako zortziko lehiaketan lortu zuten, zortziko baitzen hasieran lehiaketetara irten zen abesbatza. 1973an Ejea de los Caballerosko lehiaketan bigarren saria eskuratu zuten, eta 1974an lehendabizikoa lortu zuten. Handik aurrera, abesbatzak urtero ekarri izan ditu hainbat sari Etxarriara.

Gauzak horrela, abesbatzak 1971. urte garrantzitsu hori erreferentzi bezala hartzea erabaki zuen, bere 25. urteurrena ospatzeari begira. «Etxarri beti izan da abesbatzarako zaletasuna, eta zerbait ospatu nahi genuen, herriari zerbait eskaini nahi genion, eta 1971koa erreferentziarik hoberena zela pentsatu genuen». X

## Ijurraren bide ona

IGOR IJURRA-K, 23 urteko etxarriarrak, lan eskerga egin du bere herriko abesbatzako zuzendaritzan. 1992ko urrian, «engainatuta edo», hartu zuen abesbatzaren batuta. «Etxarriko seminarista bat izan zen ordura arte zuzendaria, baina apaiz sartu behar zuen, eta zuzendaritza taldekoek zera esan zidaten, hi ez bahaiz hor jartzen ez zagok segituzerik». Ijurrak 19 urte zituen orduan. Betidanik gustatzen zitzaion musika, piano, armonia eta kantua ikasten ari zen, eta erronkari aurre egitea erabaki zuen. «Neure buruari esan nion 'hartu beharko diagu', eta aurrera egin nuen».

Zuzendaritzaz deus ez zekiela, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek antolatzen ohi dituen zuzendaritza ikastaroetara joaten hasi zen, Lleidan ere ikastaroren bat egin zuen, eta apurka-apurka esperientzia hartzen joan zen. Bere iduriko, azken hori izan zen inportanteena, esperientzia hartzea hain justu. «Oso garrantzitsua da abesbatzak berak ematen dizun esperientzia, ateraldietan hartzen duzun hori». Ijurrak esperientzia pixka bat lortu zuenetik, abesbatza aurrera egiten hasi zen. Sakanako abesbatzak 1994an Errioxan lehengo saria lortu zuen, iaz Kantabriako

San Vicente La Barquerako lehengo saria eman zioten, eta aurten Torreviejan lortu dute arrakasta.

Lortu dituzten sarien artean, Torreviejako izan da, seguru asko, garrantzitsuenak. Halaber, egin dituzten ateraldien artean Alacanteko lehiaketara egindakoa izan da, seguru asko, gogorra. Ostegunean irten ziren Mediterraneoarantz. Hamaika ordu eta erdiko bidaiak egin eta gero, lur jota heldu ziren hotelera. Lo pixka bat egin eta gero bihar-munean bi entsegu egin zituzten, bat goizez eta bestea arratsaldean. Azkenean, gaueko hamaika eta erdietan abestu zuten ikusleen eta epaima-

haiaren aitzinean. Ijurraren arabera, «kantatu eta gero beti parranda egin behar da, tentsioa gainetik kentzeko», eta, beraz, abestu eta gero parranda egin zuten ostiral gauean. Igandean Etxarriko jaietan abestu behar zuten, larunbat goizean Euskal Herriarantz abiatu ziren. Bidaiak azkarra eta neketsua izan zen, baina hala eta guztiz ere igandean, herriko plazan, 500 lagun aurrean eta megafonia sistema hondatuta zegoela, ez ziren makal aritu. «Hiru kanta egin genituen, eta hirugarrenean tonu erdia igo ginen. Nahiz eta ezta-ria gaizki eduki, barnean genuen guztia jarri genuen».

◆ **Pedro Soria** ◆ Baso teknikaria

# «Linduxko behatokian, hegaztien migrazioa kontrolatzeaz gain, naturaz ikasten da»

**A**urten ere, azken hiru urteotan egin moduan, Ugatza talde ekologikak Ibañetako gainean dagoen Lindux mendian hegazti migratzaileak ikusteko eta aztertzeko behatokia paratu du. Pedro Soria taldeko bazkideak azaldu duenez, herrialde hotzetatik beroetara hegaztiak egiten duten bidaia ikusteaz gain, Linduxko behatokiak helburu didaktikoa du, natura guztien artean zaindu behar dela ohartarazi nahi baitu.

Irene Arrizurieta / Iruñea

Astegunetan lanean dabilenez, asteburua aprobetxatzen du Pedro Nafarroako Ibañetako gaitetik igarotzen diren hegazti ugarien etorrera behatzeko. Horretan daramatzan urteetan hainbat eta hainbat espezie aztertzeko aukera paregabea izan du.

■ **Zergatik aukeratu zenuten Ibañeta gaineko Lindux mendia hegaztien migrazioak ikusteko?**

Lindux Nafarroako Pirinioaurreetan dago. Frantzia herri laua izanik, Pirinioetara iristen direnean, aurrean pareta bertikala topatzen dute hegaztiak. Hori dela eta, mendikatea inguratu eta beraientzat sartzeko errazagoa eta beherago kokatua dagoen tokia aurkitzen saiatzen dira, energia aurrezteko batez ere. Lindux bailara zabala izanik, pixkanaka-pixkanaka igotzen dira. Kolpean al'uera handira igo beharrean aprobetxatzen dute gutxi-



Naturzalea izanik, Pedro Soria Iruñeko Takonera parkea aukeratu zuen solasean aritzeko.

JOXE LACALLE

naka pasatzeko, eta horregatik oso egokia da gune hau hegaztiak ikusteko.

■ **Noiztik dago martxan Linduxko behatokia?**

Ugatzak talde moduan badaramatza hiru urte lanean. Hala ere, Ugatzen sartuak dauden batzuk 1972. urtetik dabilta Linduxera hurbiltzen urtero-urtero.

■ **Zer egiten duzue behatokian?**

Hegazti migratzaileak behatzeaz gain, zenbatu egiten ditugu. Mendira igotzen gara eta zain egon pasatu bitartean. Orain migrazioa garaia da. Hegaztiak apirilean eta maiatzean iristen dira hona, eta kumeak hazi ondoren, uztailetik aitzina migratzen hasten dira. Hala ere, Sanferminak eta oporrak direla eta, ez dugu

jenderik zeregin horietan aritzeko. Hori dela eta, beranduxeago —abuztuan— hasten gara, orduan abiatzen baita benetako migrazioa. Zenbat hegazti iragan diren kontatzen saiatzen gara, espezie, sexua, adina. Profesionalak ez garenez, bakoitzak ahal duena egiten du. Ahalik eta azterketa osatuenak biltzen saiatzen gara. Horretarako, abuztuaren lehendabiziko egunetik azaroaren erdialdera bitartean, egunero hegaztien mugimenduen jarraipena egiten dugu. Betiere prest dauden bazkideen arabera da. Ni astegunetan lanean nagoenez, asteburuetan bakarrik joaten naiz, baino oporretan edo langabezian daudenak astean zehar hurbiltzen dira. Astegunetan joaten direnak txandakatu egiten dira, astero-astero baten bat joaten da. Horrela, pasatzen diren guztiak klasifika ditzakegu.

■ **Hegaztiak kontrolatu eta zenbatzeaz gain, baduzue beste helbururik behatokiarekin?**

Helburua ingurugiroa zaintzen eta begiratzen erakustea da. He-

gaztiak ezagutaraztea eta bidaiatu egiten dutela ohartaraztea. Bidenabar, gainera, Lindux mendiko ingurunea gordetzen saiatzen gara.

■ **Nafarroan hegazti espezie aberastasuna handia dela esan da beti. Zein dira gehien ikusten dituzuenak?**

Garaia arabera izaten da hori. Orain, adibidez, miru beltz asko pasatzen dira, astelehenean ia 400 iragan ziren. Abuztuaren bukaeran zapelatz liztorjalea ikusiko dugu, batez ere. Irailean, berriz, hegazti espezie asko iragaiten dira: arrano txikiak, arrano sugezaleak eta zikoia beltzak. Espezie bakoitzeko gutxi izaten dira, baina espezie gehien pasatzen diren hilabetea hau da. Urrian, aldiz, ehiztariak ehizatzen hastearekin batera, usoa etortzen da, eta azaroan migrazioa akitzen ari den seinalea ematen duten kurriloak.

■ **Zein ibilbide egiten dute?**

Linduxtik iragaiten direnak Britainia Handitik eta Frantziatik etortzen dira, eta Saharaz beheko

s o s l a i a

Pedro Soria 23 urte besterik ez dituen arren, beti izan du naturarekiko begirunea eta naturaz ikasteko gogo. Berriozarren bizi da eta Ugatza talde ekologikistako bazkide da, duela hiru urte naturazale batzuen ekimenez sortu zenetik. Taldean kanpo lanak egiten ditu, hegaztien behaketak, besteak beste.

Linduxko hegazti behaketaz landa, Ugatzak badu beste proiekturik. Nafarroan dauden aintziretako hegazti espezieak zenbatu eta babes handiagoa behar duten aztertzen du egiten dituen kanpaina berezietan. Ganaduzaleei zuzendutako informazioa ere banatzen du, sarraskijaleentzat hildako ganadua non utzi behar den gomendatzeko.

Natura afizio eta eguneroko kezka izateaz gain, lanbide ere badu Soria. Atarrabiako Nekazaritza Eskolan baso teknikari ikasketak 1992. urtean bukatu ondoren, Iruñeko Ibaialde enpresan dabil lanean azken urtean. Ibaialden natura inguruneak lehengoratzaz arduratzen dira.

Afrikaraino jaisten dira. Hala ere, batzuk Espainian gelditzen dira negua igarotzera, eta Nafarroan bederen ikusi dugu azken urteotan espeziaren bat: tenperatura igotzen doanez, arrano arrantzaileak ikusten hasiak gara, eta lehenago Espainian ere oso arrarozen. Pixkanaka-pixkanaka tokiz igotzen doaz.

■ **Arestian hegazti migratzaileak migrazio garaian egunero kontrolatzen Ugatzak hiru urte daramatzala esan duzu. Hainbat bitxikeria edo ezusteko ikusteko parada izanen zenuten, ezta?**

Hegaztien kontrolak egiten hasi ginen lehendabiziko urtean Extremaduran bizi den sai beltza ikusi genuen. Sai beltzak ikustea oso ezohikoa izaten da, Frantzian ez baitago deus, eta normalean ez dira hemendik igarotzen. Kaiok ere ikusi izan ditugu. Itsasoa nahiko gertu daukagun arren, ez da arrunta izaten horiek topatzea. Zangaluzeak ere noizbait hurbildu dira honantz, kurlinak, esaterako.

«Abuztuaren lehendabiziko egunetatik azaroaren erdialdera arte hegaztien mugimenduen jarraipena egiten dugu, espeziea, sexua eta adina kontrolatzeko»

## P A N E LUCRÁNDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ  
HONATAGO  
·23·

GAUR:  
**KANTIGA**  
ORRIAK

UXIO  
NOVONEYRA

Arratsaldea badoalarik  
murgildoz doa  
ametsak ilunpean eta garrantza da  
oinazea.

Arratsa badatorrelarik  
itoz, doaz  
ametsak ilunpean eta maundituz da  
oinazea.

Gaua puztu delarik  
galduz doaz  
ametsak ilunpean eta gailenduz da  
oinazea.